

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4325

HUTSEN ZUZENKETA, honako ebazpen honena: «Ebazpena, 2012ko uztailaren 13koa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, Lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunpekoek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2012-2013 ikasturtean diru-laguntzak emateko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2012ko uztailaren 13ko Ebazpenean. Ebazpen horren bidez, diru-laguntzak ematen dira, Lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunpekoek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2012-2013 ikasturtean (2012ko uztailaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 144. zk.). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

2012/3425 (5/4)orrialdean, I. eranskinean, «ONARTUTAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK» izenekoan,

Honela dio:

«GUZTIRA MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA.....14.625,00».

Baina honela esan behar du:

«GUZTIRA MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA.....13.225,00».